

## KUDEAKETA-POLITIKA

Ikerketa aplikatuko erakunde pribatua da CIDETEC, 1997an sortua. Balio erantsi handia duten eta ekonomikoki bideragarriak diren soluzio teknologikoak garatu eta martxan jartzen ditu enpresetan, horretarako jakintza teknologikoa erakarrituz, sortuz eta transferituz. Azken helburua da bere bezeroen lehiakortasuna hobetzea eta gure inguruko enpresa-sarea hobetzeko prozesuan aktiboki parte hartzea.

Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkean, Donostian dago CIDETEC, eta nazioartean erreferentziakoak diren hiru zentro teknologiko biltzen ditu.

### > Energia-metaketa

CIDETEC Energy Storage zentro espezialista da baterien teknologia berriak sortzen eta haiek industriari transferitzen. Zentroak produktu eta prozesu osoak garatzeko ahalmena du, eta zerbitzu hauek eskaintzen ditu: materialen baliozkotzea, fabrikazio pilotua, paketeen ingeniari-tza eta baterien saiakuntza.

### > Gainazalen ingeniari-tza

CIDETEC Surface Engineering erreferentziako zentro bat da gainazalen ingeniari-tzan, eta teknologia horien garapenean espezializatutako berrikuntza-polo baten ardatza ere bai; izan ere, gainazalen balio-kate osoko irtenbideak eskaintzen dizkie automobilgintzaren sektoreari, sektore aeroespazialari eta energia-sorkuntzakoari, besteak beste.

### > Nanomedikuntza

CIDETEC Nanomedicine biomedikuntzaren arlorako material berritzaileak garatzen dituen zentro bat da. Zentroaren jardura teknologia garatzean datza eta, une honetan, hiru patente-familia ditu balioztatze-fasean. Industriarekin duen zuzeneko harremana baliatuz, teknologia transferitu dezake eta, hala, denbora gutxiago behar da merkatura iristeko.


Zentro horietako bakoitzak bere egoitza eta instalazioak ditu, goi-mailako ekipamenduz hornituak.

Gure helburua CIDETEC aliantza estrategikoetarako bazkide erakargarri gisa ikustea da enpresa, administrazio eta ikerketa-erakundeek, bikaintasuneko jakintza teknologikoa transferitzeko duen gaitasunagatik, eta enpresa-sareari eta gizarteari balio erantsi handia emateagatik.

Helburu hori lortzeko, hauek dira gure oinarritzko balioak:

- **Lantalde kohesionatua**, ibilbide profesionalean etengabe aurrera egiten duena, eta kualifikazio-, espezializazio- eta inplikazio-maila handia duena, bai eta gogobetetze-maila handia ere.
- Ikuspegia, **pentzamen-estrategikoa** eta emaitzetara bideratutako estrategia dituen zuzendaritza-taldea.
- **Konpromisoa** dugu gure gaur egungo eta etorkizuneko **bezeroekin** nahiz gure ingurunearekin, irtenbide teknologiko onenak modu eraginkorrean eskaintzeko, betiere haien eskakizunak eta itxaropenak kontuan izanda.
- Bezeroaren zerbitzura jartzeko zaletasuna. Sinetsita gaude CIDETEC bera ez dela helburua, eta haren izateko arrazoia dela **enpresei**, eta oro har gizarteari, **benetako balioa eskaintzea**.
- **Erronka berriei** estrategikoki heltzeko gaitasuna duten pertsonak.
- **Lankidetzarako prestutasuna**, elkarlanaren bidez balioa sortzeko eta gure xedea lortzen laguntzeko gai diren entitateekin.
- **Bikaintasuna** gure lanean eta gure emaitzen kalitatean (emaitzetara bideratuta egotea).
- **Etengabeko hobekuntza**, berrikuntza eta aldaketetara egokitzeko gaitasuna.
- Gure jarduerari dagozkien **baldintzak** zorrotz betetzea.
- **Inpartzialtasun** eta **konfidentzialtasun** burututako aktibitate guztietan. Gure profesionalak lortutako emaitzak aldatu litzakeen presiorik gabe gauzatzen dituzte beren eginbeharrak, analisi funtzioetarako beharrezkoa den informazio guztia modu egokian kudeatzea bermatuz.

Erakundearen posizionamenduaren erakusgarri, dokumentu hau sinatzen dut kudeaketa-politika hau eta politika horrek adierazten duena babesten ditudala frogatzeko.

  
Javier Rodríguez  
Zuzendari nagusia